


Olentzaro albistari

Jose Miguel Barandiaran'ek zionez (Z. ARGIA 1972. XII.24), zenbait errietan "Kristo jaio berriaren albistea otsegitera menditik beera datorren gizona dala diote Olentzaro". Ondoren gogoratzen digu nola galdu ziran jentillak Kristautasuna etortzean eta onela jarraitzen du:

"Baña bat gelditu zan eortzi gabe eta bizirik. Menditik beera jetxi eta Kristoren jaiotzaren berri eman zuan ibarreko eta errietako jentillen artean. Auxe zan leenengo Olentzero eta Euskal Erriko aurreneko mixiolaria.

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzivadarekin
ikatz egitera.
Adu duenian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
adieraztera".



Orrela jarriatzen du gure maixu zaararak gai oneri buruz:

"Erri batzuetan ahistari oni, Kristo'ren iragarleari, Mairua deitzen diote; beste batzutan, berriz, Jentilla..."

Olentzaro ardo-edale rnozkorra

Aldaketa moskorretik mozkorrena, geiegi ez zekien batek egingo zuela. Donosti aldekoa seguru asko. Mokorra ardo-zale gizaki bat egin dute. Eta, aldaketa orretatik sortu dira ainbat eta ainbat bertso:

Olentzero begi gorri
nun arrapatu dek arrai ori
Zurriolako arkaitzetan
Orra, orra, gure Olentzero
pipa ortzian duela escrita dago...
Olentzero guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.
Saiaski ta solomo
makiña bat este...



Erri zaarra gora eta oiturak gordetzen iaioak; baserrieta-ko lana izan da. Gaur gure baserri asko pikutara joan dira eta etena aundia gartatzen ari da egunetik egunera... Laister ez degu gure aurrekoen antzik ere izango... Baña, ondo edo gaizki, Kristautasuna gorde degu orain artean urte askotan eta gure oneTako. Segi dezagun aurrerantz ere bide ortatik.

Alaitu ta poztu gaitezen
gaurko gabaarekin
gure Jesus onaren etorrerarekin.

BARTOLO ARROPAINGO



EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN
EUSKAL-ASTEIA 1998
(Bilbao'ko Udalaren babespean eta laguntzaz)

Urte guztietan lez aurte be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Euskal-Asteia ospatuko dau.

Zemendiaren 30'etik abenduaren 3'ra izango da, Eskolapiotarren Ikastetxean Aida. de Rekalde kalean, 19. atean, arratsaldeko 8'etan.

Oneik izango dira izlariak eta gaiak:

30.- Astelena: Zubiri'tar Iñaki: Arrese Beitia'ren olerkaritza.

1.- Martitzena: Legarreta'tar Asier: Bertsolaritza.

2.- Eguastena: Latxaga (J.M. San Sebastián): Dabbadie euskalzale ta idazlea.

3.- Eguena: Murua'tar Jose María: Euskerea ta Euskerazaintza.

Itzaldi guztiak izango dabe aurkezpena, alkar-izketa ta bertsoak. Oneik Paulin Solozabal bertso gille dala.

Beioake euskalzale guztiai gure deia.